

Is(h)ilik



ANA MENDIA
EMAGIN EGOILIARRA

Mila bider amestu zuen bere erditzea; makina bat aldiz irudikatu bere burua bular biluziaren gainean jarriko zuen txikiaren azal leunari kilimaka; askotan galdegin zion patuari zein zapore izango ote zuen lehen musuak. Sekula ez zuen imajinatu, ordea, hildako haurra munduratuko zuenik.

Naturaren kontrakoa dirudi lehenbizi hil eta ondoren jaiotzea, baina gupidagabea da errealtatea. 2017an amaren sabelean haurdunaldiko 22. astetik aurrera edo jaio eta lehen astean gertatutako 94 heriotza erregistratu ziren EAEn. Zehaztutako garaira heldu baino lehen gelditu ziren beste bihotz asko, noski. Gurasotasunaren itzala, ordea, ez da lantokiko kafe-makina parean aipatzen.

Gelako atea. Emagina zen. Sehaska zekarren. Bikotearen eskua heldu eta erditze-gelan burua irtetear zegoela azken bulkada hartan egin zuen bezalaxe eskatu zion barru-barrutik: eman maitasuna. Gogora ekarri zuen emagin berak ordu batzuk lehenago esan ziena: existitzen ez direnean sortu egin behar dira oroi-tzapenak. Huraxe izan zuten umetxoa lehenengoz eta azkenekoz laztantzeko

Zaila da isiltasuna entzutea
negarra espero denean.
Mingarria. Baina amaren
umetokia edo ospitaleko
sehaska besterik ezagutu ez
dutenen heriotza aitortzea
ezinbestekoa da

aukera bakarra. Jarri zuen bular biluziaren gainean; kilimatu zuen txikiaren azal leuna. Eman zioten musu. Bitxia da, baina irudi mingarri hartan bazen ederra zen zerbait.

Haurra estaltzen zuen izara, txanoa eta txikiaren oin eta eskuen aztarnekin egindako marrazkia bildu zituzten. Ohartu ziren gela hartatik 39 astetan ereindako ilusioa kutxa batean gordeta irtengo zirela. Sabela eta besoak hutsik; are hutsago bihotza. Azkenekoz begiratu

zuten sudur polit hura: "Ez zaitugu sekula ahaztuko".

Zaila da isiltasuna entzutea negarra espero denean. Mingarria. Baina amaren umetokia edo ospitaleko sehaska besterik ezagutu ez dutenen heriotza aitortzea ezinbestekoa da. Familiak dolurako eskubidea dute; negar egiteko askatasuna merezi dute; etxeko atetik barrura bizi dutena kalera ateratzeko aukera. Labankada gehiegi jasotzen dituzte: "Gazteak zarete", "Helduko da beste bat", "Denborak sendatuko du". Agerrikoa da alboan dugunaren atsekabea arindu beste nahirik ez dugula; baina konturatu gabe mina zorroztea besterik ez dugu lortzen.

Akaso utopia leporatuta atxilotuko naute itxaropentsuen kartzelan, baina egia bistaratzek normalizazioaren metxa pizten duela uste dut. Horregatik sentitu dut idazteko beharra. Ezin ditut begiak itxi. Ez da zilegi. Ze ofizio dut ongi etorrian laguntzea; baita agur esan behar denean alboan egotea ere.

** Oin txikiena ere betiko aztarna uzteko gai da. ●*

www.bertsozale.eus

TUTERA
Otsailak 9, 17:30ean, Musika Eskolan
Aitor Karrika Iribarren, Eneko Fernandez Meritxale, Aizone Untxoia Erregorri,
Mikel Lasarte Cia, Joana Zizenda Olano eta Saita Karasotxe Martinez
Gai-jartzailea: Mikel Beldarrain Erreineraga

Nafarroako Bertsolari Txapelketa
2019

Artistak:

Sareak: www.bertsosareak.eus atarian salgai

URDAZUBI
Otsailak 10, 17:30ean, Kultur Etxean
Julia Soto Eakundia, Soia Alkiza Gualas, Iker Gorosterrazu Elzagaien,
Iban Garro Alzuri, Iñaki Mujale Itza eta Sahats Aleman Sallaba
Gai-jartzailea: Ainhoa Larrea Agirre

ARGIA
Laguntzailea